

26.

ERRIBERRIKO ANTZERKI JAIALDIA

NAFARROA



UZTAILAK 18 -ABUZTUAK 3



UZTAILAK 18 -ABUZTUAK 3



ERRIBERRIKO ANTZERKI JAIALDIA

26.

NAFARROA

AURKEZPENA

ERRIBERRI, ARTE ESZENIKOEN JAIALDIA

Erriberriko Antzerki Jaialdia 2025ean ere, hemen da, Ane Pikaza eta María Goiricelaya zuzendari artistikoen proiektua sendotzeko helburua duen edizioa. Gure komunitatea eta arte eszenikoen sektorearen inguruko kultura eremua aberasten duen ezinbesteko hitzordua izanen da.

Iaz jaialdi honen 25. urteurrena ospatu genuen, eta aurrerantzean ere edizio gehiago espero ditugu, elkartzeko, sortzeko eta elkarriketarako topaleku gisa.

Uztailaren 18tik abuztuaren 3ra bitartean, gure komunitatea antzerkia, musika, dantza edota zirkoa beren bizitzaren parte sentitzen duten ororentzat topaleku ezin hobe izango da; sorkuntzatik, produkzioetik edo interpretazioetik eta baita besaulki patiotik ere.

2025eko Erriberriko Jaialdiak diziplina anitzeko programazioa eskainiko du: musika, dantza, zirkoa, clowna, performancea, ibilaldi eszenikoak eta antzerkia. Argentinatik, Frantziatik, Andaluziatik, Gaztela eta Leondik, Madriletik eta Euskaditik etorritako konpainiek Nafarroako sortzaileekin taula partekatuko dute.

Programa hau era askotako adierazpen eta jardueren arteko harremanen erreferente gisa finkatzea nahi dugu, jaialdi berean tailerrak, egonaldi artistikoak eta publikoaren eta sortzaileen arteko topaketak batuz.

Erriberriko ANTzerki Jaialdiaren helburua argia da: nazioarteko, estatuko eta tokiko proposamen eszeniko berritzaileenei bide ematea. Garai hau entzuten dakiten ekoizpenak, baina era berean, etorkizun eszenikoari begiratzen diotenak. Eta batez ere, tradizioa eta garaikidetasuna modu ausart eta bizi batean uztartzen dituzten lanak partekatzea.

Jaialdiak bere mugez harago begiratzen du, eta bere lurralde-proiektzioa sendotzen jarraitzen du. Erriberriz gain, Pitillas, San Martin Unx, Tafalla eta Beire izango dira arte eszenikoen aterpe. Kalitatezko programazioak, nazioarteko eta bertako sortzaileen arteko elkargune bihurtuta, Nafarroa sormen eszenikoaren erakusleihu bilakatzen du.

Emozioz ekingo diogu Erriberriko Antzerki Jaialdiaren edizio berri honi eta zuen eserlekuetara hurbiltzera gonbidatu nahi zaituztegu.

Rebeca Esnaola Bermejo
Kultura, Kirol eta Turismo sailburua

AURKEZPENA

2025EKO EDIZIOA KOMUNITATEA, TOPAKETA ETA SORKUNTZA

Erriberriko Antzerki Jaialdia ez da jaialdi soil bat, etengabe aldatzen ari den lurralde bat da. Ideiak, hitzak eta ekintzak nahasten diren lekua, orainaldi askeago, kritikoago eta gizatiarrago bat eraikitzeko. Mugak apurtu, belaunaldiak lotu eta arte eszenikoak ulertzeko eta bizitzeko modu desberdinen arteko elkarrizketak sortzen dituen espazioa.

Hemen, Antzerkigintza zabaldu, berrasmatu eta zalantzan jartzen da. Hemen, ahots emergenteek ibilbide sendoekin egiten dute topo, tokikoa globalarekin gurutzatzen da eta istorio pertsonalak unibertsalak bihurtzen dira.

Urtero, irudimenaren mugak arakatu eta harago begiratzera ausartu nahi duten artista, publiko eta sortzaileen topaleku bihurtzen da Erriberri. Jaialdi horren arabera, artea ez da antzezpena bakarrik, elkarrizketa, trukea eta esperientzia partekatua ere bada.

Aurtengo edizioan, ahots, estilo eta ikuspegi aniztasun hori ospatu nahi dugu. Diziplinen mestizajea, bitartekaritza eta topaketa besarkatu nahi ditugu, askotan isolatzen gaituen munduari aurre egiteko modu gisa.

Antzerkia gure komunitatea birpentsatzeko eta gure oraina berrasmatzeko lekua dela uste dugulako. Izan ere, badakigu arte eszenikoek mundua islatzeaz gain, eraldatu ere egiten dutela.

Gaur, inoiz baino gehiago, jaialdia da zerumuga elkarrekin begiratzeko eta munduan egoteko eta izateko modu berriak eraikitzeko babesleku hori.

Ongi etorri Erriberriko Antzerki Jaialdira. Ongi etorri sorkuntzara, topaketara, komunitatera.

Ane Pikaza eta María Goiricelaya
Erriberriko Antzerki Jaialdiko zuzendari artistikoak

ABONUAK ETA SARRERAK

Salmenta maiatzaren 30etik aurrera

SALMENTA ONLINE

www.FestivalTeatroOlite.es	www.fundacionbaluarte.com
--	--

SALMENTA LEIHATILAN

Baluarte (948 066 060)

- Maiatzaren 30etik uztailaren 5era, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara, astelehenetik larunbatera. Igandeetan eta jaiegunetan itxita. Ekitaldirik badago, bi ordu lehenago irekiko da.
- Uztailaren 6tik 15era, biak barne, txarteldegia 20:00etatik 23:00etara egongo da zabalik.
- Uztailaren 16tik abuztuaren 3ra, 11:00etatik 14:00etara, astelehenetik larunbatera. Igandeetan eta jaiegunetan itxita. Ekitaldirik badago, bi ordu lehenago irekiko da.

La Morea Merkataritza Zentroa (679 968 580)

- Asteko egun guztietan irekita (igande eta jaiegunetan izan ezik), 09:30etik 21:30era.

Erriberri (848 42 32 23)

- Maiatzaren 29tik, asteburuetan eta jaialdian zehar, Enocumean.
- Ostiraletan, 17:00etatik 19:00etara; larunbat eta igandeetan, 10:00etatik 14:00etara.
- Ikuskizun egunetan, 19:00etatik 22:00etara.

Tafalla Kulturgunea (948 755 969)

La Celestina, *Tragicomedia de Lita* de Rey Marciali Producciones (8€) eta *Thauma* de La Mula (6€)

Maiatzaren 29tik aurrera, leihatilan eta online es.patronbase.com/_Tafalla/Productions

Erriberriko Errege Jauregia

Gorka Urbizu eta *Enbor(r)ak*, sarrera librea, lekuak bete arte. Aldez aurretik gonbidapenak Enozentrum-eko leihatilan jaso behar dira.

PREZIOAK

La Cavako ikuskizunak 20€

Gazte Txartela 12€

Abonu osoa La Cava (12 funciones) 210€

Gazte Txartela 96€

Hiru emanalditarako abonua La Cava aukeran (edozein egun) 55€

Gazte Txartela 28€

MUGIKORTASUN MURRIZTUA DUTEN PERTSONAK

Erriberriko Antzerki Jaialdiak, La Cavako ikuskizunetarako, zortzi eserleku ditu erreserbatuta emanaldiko, mugikortasun murriztua duten pertsonentzat. Herri horietan interesa dutenek Baluarteko eta Erriberriko leihatiletan edo 948 066 060 telefonoaren bidez egin beharko dute erosketa (gehienez bi sarrera erosketa bakoitzeko). Antzerki Jaialdiak ez du bermatzen mugikortasun murriztua duten eta erreserbatutako eremutik kanpo sarrera bat eskuratzen duten pertsonen beharizanetarako kokapen egokia. Hala ere, antolatzaileak ikusleak guneak eskaintzen dituen aukeren barruan kokatzen saiatuko dira.

IRISGARITASUNA

Los Brutos; *Mihura*, *azken komediografoa* eta *Las bingueras de Euripides* lanak ikusmen eta entzumen urritasuna duten pertsonentzat irisgarriak izango dira, eta honako zerbitzu hauek izango dituzte: azpтитulu egokituak, audio-deskribapena, banakako begizta magnetikoa eta soinu anplifikatua, entzungailuekin.



Generoa



Publikoa



Formatua



Iraupena



Hizkuntza



Irisgarritasuna



Webgunea



Instagram



Facebook

ARTE ESZENIKOAK ETA MUSIKA							
uztailak 18 Ostirala	“WELCOME & SORRY” Ganso & Cía 🕒 19:00 📍 Teobaldoen Plaza, Erriberri	uztailak 20 Igandea	EN MITAD DE TANTO FUEGO Miramedia 🕒 22:00 📍 La Cava	uztailak 25 Ostirala	EL PEOR ESPECTÁCULO DEL MUNDO Zanguango Teatro 🕒 19:30 📍 Teobaldoen Plaza, Erriberri	uztailak 27 Igandea	TODO ESTE RUIDO Qabalum 🕒 19:00 📍 Elizako plaza, Pitillas
	LA CELESTINA, TRAGICOMEDIA DE LITA Rey Marciali Producciones 🕒 19:30 📍 Tafalla Kulturgunea	uztailak 23 Asteazkena	TORCIDXS Las Nenas Theatre 🕒 22:00 📍 La Cava		EL BAR NUESTRO DE CADA DÍA Chipi La Canalla 🕒 22:00 📍 La Cava		H La Corcoles 🕒 19:30 📍 Teobaldoen Plaza, Erriberri
	LOS BRUTOS CDN 🕒 22:00 📍 La Cava	uztailak 24 Osteguna	BANABA FLAP Street fools 🕒 13:00 📍 Karlos III.a plaza, Erriberri	uztailak 26 Larunbata	TODO ESTE RUIDO Quaballum 🕒 19:00 📍 Kondearen plaza, Tafalla		EL DRAGÓN DE ORO Sarabela Teatro 🕒 22:00 📍 La Cava
uztailak 19 Larunbata	“WELCOME & SORRY” Ganso & Cía 🕒 19:00 📍 San Martin Unxeko plaza					uztailak 29 Asteartea	SIN FICHERO ADJUNTO Erain 🕒 18:00 📍 Kondearen plaza, Tafalla
	DE NAO ALBET Y MARCEL BORRÀS Nao Albet y Marcel Borràs 🕒 22:00 📍 La Cava		ZORRETAN Hika Teatroa 🕒 22:00 📍 La Cava		THAUMA La Mula 🕒 19:30 📍 Tafalla Kulturgunea		LA VELOCIDAD DE LA LUZ Marco Canale Site Specific Argentina 🕒 19:00 📍 Fosal plaza, Erriberri
uztailak 20 Igandea	OVVIO Lapso Cirk 🕒 19:30 📍 Teobaldoen Plaza, Erriberri	uztailak 25 Ostirala	TODO ESTE RUIDO Qabalum 🕒 19:00 📍 San Martin Unxeko plaza		MIHURA, EL ÚLTIMO COMEDIÓGRAFO Nave10 Matadero, Entrecajas Producciones Teatrales 🕒 22:00 📍 La Cava	uztailak 30 Asteazkena	LA VELOCIDAD DE LA LUZ Marco Canale Site Specific Argentina 🕒 19:00 📍 Karlos III.a plaza, Erriberri

uztailak 31 Osteguna	INSTRUCCIONES PARA ALBERTO GONZÁLEZ Ion Iraizoz 🕒 22:00 📍 La Cava	abuztuak 2 Larunbata	EL BROTE Compañía Criolla 🕒 22:00 📍 La Cava	Daniel Galindo, Machús Osinaga eta Raúl Losáñez 🕒 13:00 📍 Enozentrum, Erriberri	Uztailaren 21etik 25era “LA VELOCIDAD DE LA LUZ” TAILERRA Marco Canale 🕒 10:00 - 14:00 📍 Erriberriko Kultur Etxea
abuztuak 1 Ostirala	ENBOR(R)RAK Harreman 🕒 19:00 📍 Victoriano Flamarique plaza, Beire GORKA URBIZU Musika 🕒 20:30 📍 Erriberriko Errege Jauregia, sarrerako patioa LA MONTAÑA Mikele Urroz Zabalza 🕒 22:00 📍 La Cava	abuztuak 3 Domingo	MILAGROS Y VALENTINA Lorena Arangoa 🕒 18:00 📍 Teobaldoen Plaza, Erriberri YA TE LO DIJE Broken Brothers Brass Band 🕒 19:30 📍 Erriberri LAS BINGUERAS DE EURÍPIDES Las niñas de Cádiz 🕒 22:00 📍 La Cava	Uztailak 26, larunbata NAFARROAKO KONPAINIEN TOPAKETA EITBko Galder Pérez 🕒 12:00 📍 Enozentrum, Erriberri	
				TAILERRAK	
				Uztailak 19 MASKARA TAILERRA Iratxe López de Munain 🕒 18:00 📍 Musika Plaza, Erriberri	
				Uztailaren 21etik 25era “HAY QUE SALVAR EL FUEGO” IDAZKETA TAILERRA Alberto Conejero López 🕒 10:00 - 14:00 📍 Erriberriko Kultur Etxea	
				Uztailaren 21etik 25era “OLITE, MÍRAME A MÍ” SORKUNTZA TAILERRA Alessandra García 🕒 10:00 - 14:00 📍 Erriberriko Kultur Etxea	
abuztuak 2 Larunbata	RESONANCIAS Itsaso Iribarren y Germán de la Riva 🕒 12:00 🕒 13:00 📍 Elizako plaza, Pitillas ENBOR(R)RAK Harreman 🕒 20:00 📍 Erriberriko Errege Jauregia, sarrerako patioa	TOPAKETAK	Uztailak 19, larunbata ZENTRO DRAMATIKO NAZIONALEKO “LOS BRUTOS” TALDEAREKIN TOPAKETA Daniel Galindo, Machús Osinaga eta Raúl Losáñez 🕒 13:00 📍 Enozentrum, Erriberri Uztailak 20, igandea TOPAKETA ALBERTO CONEJEROREKIN		
					EGONALDIAK
					FARMACIA MARCIAL Natxo Lapieza Uztailak 28 astelehena🕒 20:00📍 Beire Uztailak 30 astazkena🕒 20:00📍 Erriberri OSCOPIÁ Estefanía de Paz Uztailak 29 asteartea🕒 20:00📍 Tafalla Kulturgunea Uztailak 31 osteguna🕒 20:00📍 Erriberri

ARTE ESZENIKOAK

ETA MUSIKA





“WELCOME & SORRY”

Ganso & Cía		📍 Bizkaia			
📅 Uztailak 18, ostirala	🕒 19:00	📍 Erriberri	📅 Uztailak 19 larunbata	🕒 19:00	📍 San Martín de Unxeko plaza
Irekitzen da oihala: “TO BE OR NOT TO BE!”. Hortaraino dena ondo. Bi antzerkizale “Hamlet” antzeztuko dute jatorrizko obrari leialtasun osoz. Dozena bat artistaren eta teknikaren lana egin beharra, Shakespeareren hizkuntzan aritu beharra eta talentu edo gaitasunik ez izatea ez dira oztopo izango. Edo bai? William-ekA burua altxatuko balu... agian ez litzateke harrotasunez beteko, baina barre batzuk bai egingo lituzke. WELCOME & SORRY kale-antzerki ikuskizun bat da, klasiko handien eta haien inguruko estereotipoen parodia eginez antzerkilaritzaren lanbidea ikusarazten duena. Adin guztientzako Clown estiloko komedia gestuala da. SARIAK ▪ Interpretazio onenaren saria FETEN 2017: “KAPUT” ikuskizunarekin.			AKTOREAK Gorka Ganso & Cecilia Paganini FITXA ARTISTIKOA Zuzendaritza: Gorka Ganso & Cecilia Paganini Antzerkigintza: William Shakespeare Eszenografia: Argon Ediskrap Jantziak: Porota's Mode Ekoizpena: GANSO&Cía Banaketa: PORTAL 71		
👤 Clowna	👥 Guztiak	🏠 Kalea	🔗 ganso.info		📘 GANSOCIA
🕒 50'	💬 Testurik gabe		📷 @gansocia		

LA CELESTINA, TRAGICOMEDIA DE LITA

Rey Marciali Producciones	📍 Republica Argentina
📅 Uztailak 18 ostirala	🕒 19:30
	📍 Tafalla Kulturgunea

Fernando de Rojasen lan klasikoko ahotsek Lita zeharkatzen dute, etengabe hiltzeko arriskuan dagoena. Bere eskuekin, gainera erori zaion eszenografia bati eutsi behar dio. Dena hari batetik zintzilik dago eta ez zaio indarrik geratzen; hala ere, barre egingo du, negar egingo du eta azkeneraino gozatuko du.

Ikuslea eszenaren barruan sartzera gonbidatzen dute, antzetzu gabe, bidaia bakar eta errepikaezin batean.

AKTOREAK

Julieta Daga

FITXA ARTISTIKOA

Zuzendaritza: David Piccotto

Antzerkigintza: Fernando de Rojasen “La Celestina” testua-ren bertsio librea, David Piccoto eta Julieta Dagarena

Eszenografia: Santiago Pérez

Jantziak: Santiago Pérez

Argiztapena: Lilian Mendizabal

Soinua / Musika: Juan Andrés Ciámpoli

Ekoizpena: David Piccotto eta Julieta daga



SARIAK

- TEATRES 2020/2021 Udal Saria David Piccotto zuzendariari
- Eszenografia Onenaren Saria Siripo 2022 Sariak
- La Artista del Encuentro “obra irabazlea Salamancako Pailazoen 7. Topaketan - España 2023
- Rascacielos aldizkariaren IV. Kritika Amateurreko Lehiaketaren testu irabazlea, La Pazeko (Fitaz) Nazioarteko Antzerki Jaialdian. 2024

👤 Teatro-Clown	👥 + 16	🏠 Sala
🕒 60'	💬 Castellano	

LOS BRUTOS

Centro Dramático Nacional - INAEM

 Madrid

 **Uztailak 18 ostirala**

22:00

La Cava

“Bortitza, zakarra, begirunerik eta zibilitaterik gabea”, hori da RAEk ematen duen “Bruto”-ren definizioa.

Eta horrelakoa da, nolabait, Nitoren mundua: bizi den auzoa, inguruko jendea. Horregatik, zinema-eskolan gidoia ikasteko sartu zenean, beste bizitza artistiko eta sofistikatu batera jauzi egin zuen.

Hau da igarobide horren istorioa eta baita Nitok bidean utzi duenarena: bere lagunik onena, bere neskalguna, bere familia. Idazteak eragiten du galera, eta, aldi berean, hori guztia bizirik mantendu dezakeen bakarra da, fikzioan bada ere.

 **Antzerkia**

 Guztiak

 **Aretoa**

 85'

 **Gaztelania**

 **Azpitituluak / Begizta magnetikoa**

 dramatico.inaem.gob.es

f **centrodramaticonacional**

 @centrodramaticonacional

AKTOREAK

Javier Ballesteros, Angela Boix, Francesco Carril,
Olivia Delcán eta Emilio Tomé

FITXA ARTISTIKOA

Zuzendaritza: Roberto Martín Maiztegui

Antzerkigintza: Roberto Martín Maiztegui

Eszenografia: Monica Boromello

Jantziak: Sandra Espinosa

Argiztapena: David Bicazo

Soinua / Musika: Sandra Vicente

Ekoizpena: Centro Dramático Nacional

Banaketa: Centro Dramático Nacional

Zuzendaritza laguntzailea: María García de Oteyza

Eszenografia laguntzailea eta iantziak: Mauro Coll Pio-

Łozonogran i agantŁana Ota jantŁaki Maaro Oon Ho
trowski

Argiztapen laguntzailea: Alejo Gozente

Arduradun teknikoa: David Bernués





DE NAO ALBET Y MARCEL BORRÀS

Nao Albet y Marcel Borràs

Catalunya

Uztailak 19 larunbata

22:00

La Cava

Nao Albet eta Marcel Borràsen iraganeko, oraingo eta etorkizuneko lan artistikoaren antologiak bere adiskidetasunaren historia eta bere harremanaren amaiera tragikoa kontatzeko esparru gisa balio du. Nork bere burua ezagutzeko bidaia introspektiboa, gure egoen funtsa argitzea eta geure buruari kontatzeko premiari buruz hausnartzea bilatzen duena, autofikzioaren mugak aztertuz eta azpigeneroa deseraikitzen saiatuz, hizkuntza propioa aurkitzeko.

AKTOREAK

Nao Albet eta Marcel Borràs

FITXA ARTISTIKOA

Zuzendaritza, espazio eszenikoa, Antzerkigintza, Eszenografia, Jantziak, Argiztapena, Soinua / Musika, Karakterizazioa, Zuzendaritza laguntzailea, Mugimendu-aholkularitza, Arte martzialak, off-eko ahotsak, bideoa, dokumentazioa:

Nao Albet eta Marcel Borràs

Ekoizpena: Anabel Labrador

Banaketa: Anabel Labrador

SARIAK

- Max 2024 Saria, antzerki ikuskizun onenari "Falsestuff. Musen heriotza"
- Godot 2022 saria, Eszena Zuzendaritza onenari "Atraco, paliza y muerte en Agbanäspach" lanagatik
- Max 2021 Saria, Eszena Zuzendaritza onenari "Atraco, paliza y muerte en Agbanäspach" lanagatik
- RNEko Ojo Crítico de Teatro Saria, 2016
- Arte Eszenikoen Kritikaren Saria Antzerki Testurik Onenari, "Mammón" lanagatik, 2016

Teatro

+ 14

Sala

@nao_marcel

100'

Castellano



					12
OVVIO					
Kolektiv Lapso Cirk			 Catalunya		
 Uztailak 20 igandea		 19:30		 Teobaldoen plaza, Erriberri	
Non dago erorikoaren aurreko perfekzio unea? galdetzen diote elkarri Davidek eta Tomasek noraino irits daitezkeen jakiteko premiatik, fisikak eta kasualitateak haiek garaitu baino lehen. Giro minimalista batetik, aulki pare bat eta ohol batzuk besterik, giza harremanei eta banakako asmoei buruzko kontakizun intimista bat eraikitzen dute, tentsio eta adrenalinaren goranzko klimaxean garatzen dena. SARIAK ▪ TAC Saria: zirku ikuskizun onena ▪ Zirkolika Saria: Kataluniako areto ikuskizun onena ▪ Umore Azoka Saria: ikuskizun berritzaile onena			AKTOREAK Tomas Vaclavek & David Díez Méndez FITXA ARTISTIKOA Zuzendaritza: Jorge Albuerne, Morgan Crosquer eta Franceso Sgro Antzerkigintza: Kolektiv Lapso Cirk Eszenografia: Kolektiv Lapso Cirk Jantziak: Kolektiv Lapso Cirk Argiztapena: Flavio Cortese Soinua / Musika: Grabrielle Mitelle & Nicola di Corce Ekoizpena: Kolektiv Lapso Cirk Banaketa: Kolektiv Lapso Cirk		
 Zirkua	 Guztiak	 Aretoa		 lapsocirk.com	
 50'	 Testurik gabe			 @lapsocirk	

EN MITAD DE TANTO FUEGO

Miramedia

Madrid

Uztailak 20 igandea

22:00

La Cava

Desira, gerra, desertzioa, boterea, indarkeria, aberria... Hainbeste su artean, giza izaerarekin hitz egiten du eta garai desberdinak lotzen ditu. Iraganeko eta orainaldiko ahotsak uztartzen ditu. Patrokloren pertsonaiatik abiatuta egiten du, Akilesen arma-laguna eta maitalea. Espainian eta Latinoamerikan 90 emanaldi baino gehiago egin ondoren, kritika bikainak eta sari ugari jaso ondoren, Erriberrira iritsi da Xavier Albertik zuzendutako lan hau, Alberto Conejerok idatzia eta Rubén de Eguía interpretatua. Troiako gerraz hitz egiten jarraitzen dugu, oraindik sutan dirauekako.

AKTOREAK

Rubén de Eguía

FITXA ARTISTIKOA

Zuzendaritza: Xavier Albertí

Antzerkigintza: Alberto Conejero

Argiztapena: Toni Ubach eta Xavier Albertí

Ekoizpena: Miramedia

Zuzendaritza laguntzailea: Adrián Novella

Teknikariburua: Leticia L. Karamazana



SARIAK

- Godot Saria 2024: egile onena eta aktore onena
- Max Sariak 2024 finalista: aktore onena
- Butaca Sariak 2024 finalista: formatu txikiko ikuskizun onena eta aktore onena
- Florencio Sariak (Uruguai) 2024 finalista: nazioarteko ikuskizun onena
- Diario La Verdad Saria, San Javierren 53. Antzerki Jaialdia 2023: ikuskizun errekonozimendu onena eta aktore onena
- Max Sariak 2024 hautagai: ikuskizun onena, egile onena, aktore onena eta argiztapen onena

Teatro

1:10'

+ 14

Castellano

Sala



TORCIDXS

Las Nenas Theatre		📍 Nafarroa	
📅 Uztailak 23 asteazkena	🕒 22:00	📍 La Cava	
Lau pertsonak elkarreragiten dute bizipen disidentetik eta umoretik, zalantzan jartzeko eta sorkuntza tresna gisa. Interpretetek desioa gorpuzten dute gauza bera ez den zerbait izateko, hori hausten duen judizio eta identitateen zurrunbilo bat dena eta epaia ospatzen du. Torcixdsen, publikoari zuzenean interpelatzen dion espazio eszeniko bat osatzen da, antzerkiaren erraiak erakusten dituen eszenografiaren eta deserosotasunez betetako esperientzia metateatral baten bitartez. Nortasun-bilaketari heltzen dio piezak, okerra, ezegonkorra eta kolektiboa dena ospatuz erresistentzia eta aukeren leku gisa.		AKTOREAK Ane Sagüés, Cristina Tomás, Maddi Muñoz eta Jon Muñoz FITXA ARTISTIKOA Zuzendaritza: Alessandra García, Las Nenas Antzerkigintza: Alessandra García, Las Nenas Eszenografia: Paula Vilageliu eta Ángel Sagüés Jantziak: Ainhoa Escalada Argiztapena: David Bernués Soinua / Musika: Izai Rodríguez eta Ane Sagüés Ekoizpena: Lara Molina Besteak: Adriana Cerdán eta Maia Ansa	
👤 Antzerki- performance	👥 + 16	🏠 Aretoa	📷 @lasnenastheatre
🕒 90'	💬 Gaztelania		

BANABA FLUP - WORK IN PROGRESS

StreetFools

Madrid

Uztailak 24 osteguna 13:00 - 19:00 Karlos III. plaza, Erriberri

Bi pertsonaia salbamendu-txalupa batekin iristen dira, uholde handiaren egunerako prest.

Klima-aldaketak euri-jasak eragingo ditu, glaziarren galdaketa eta guztia estaliko duen itsas mailaren igoera geldiezina. Hasi da atzerako kontaketa!

Txalpa hartu eta okerrenerako prestatzen dira. Itxaron egin beharko dute, eta itxarotea ez da erraza izango; zailtasunek agerian utziko dituzte pertsonalitateak, beldurrak, dolua eta oinazea, baina baita adiskidetasunaren garrantzia ere, eta nola pozak zailtasunak gainditzen laguntzen duen, eta umorea salbamendurik onena izaten dela askotan.

Uholde handia iritsi da... Ala ez?



AKTOREAK

Claudio Levati eta Jordi Solé Andrés

FITXA ARTISTIKOA

Zuzendaritza: Cia StreetFools

Antzerkigintza: Cia StreetFools

Eszenografia: Emanuele Fiandri, Patx-Work Produccions

Jantziak: Lluna Albert

Soinua / Musika: Thomas Le Saulnier

Ekoizpena: StreetFools eta KuneTeatre

Banaketa: StreetFools

Clowna

Guztiak

Kalea

streetfools.com

streetfoolstheatre

45'

Testurik gabe

@streetfools_

ZORRETAN

Hika Teatroa

Gipuzkoa

Uztailak 24 osteguna

22:00

La Cava

Rosa eta Jon aspalditik dira bikote.

Gaur Rosa etxera itzuli da urduri. Amarekin telefonoz hitz egin du eta Jonek beraiekin bizitzera gonbidatu duela ulertu dio. Rosa saiatzen da Jonek erantzun diezaion, baina hau obsesionatuta dago bere koadrozko gorbata aurkitu nahian.

Gainera, pijama kentzea nahi du, lorezko soinekoa janzteko. Joan egin behar dute, baina ez dirudi ezer bere lekuan dagoenik. Etxeko desordenaz gainera, bizitza da, antza, nahasi zaiena.

Rosa normaltasunera itzultzeko borrokan ari da, baina sentitzen du lurrazpian hondoratzen dela bere amarena dela laguntzeko prest dagoen esku bakarra.

Horregatik, bizitzea erabaki du, lur azpian, larruazal lodiko sator bihurtuta.



AKTOREAK

Miren Gaztañaga, Iñake Irastorza eta Javier Barandiaran

FITXA ARTISTIKOA

Zuzendaritza: Agurtzane Intxaurreaga

Antzerkigintza: Agurtzane Intxaurreaga

Eszenografia: Agurtzane Intxaurreaga eta Raul Arraiza

Jantziak: Agurtzane Intxaurreaga eta Xabier Mujika

Argiztapena: Xabier Lozano

Soinu-diseinua / Musika: Agurtzane Intxaurreaga eta Haritz Lete

Ekoizpena: Hika Teatroa

Banaketa: Nagore Martinez eta Agurtzane Intxaurreaga

Zuzendaritza laguntzailea: Miren Gojenola

Bideoak: Ugaitz Albisu, Acrónica producciones

Arduradun teknikoa: David Bernués

Enpresa teknikoa: Acrónica producciones

Antzerkia

Helduak

Aretoa

hikateatroa.eus

hikateatroa

80'

Euskara

@hikateatroa

TODO ESTE RUIDO

Qabalum

📍 Navarra

📅 Uztailak 25 ostirala	🕒 19:00	📍 San Martín de Unxeko plaza
📅 Uztailak 26 larunbata	🕒 19:00	📍 Konedaren parkea, Tafalla
📅 Uztailak 27 igandea	🕒 19:00	📍 Udaletxeko plaza, Pitillas

Dantza-lan hau sci-fi iruditeriaren liluratik, komikiaren narrazio zatikatu eta fotografiko indartsuetatik, CGIren eremutik eta efektu berezietatik sortua da. Sorkuntzari buruzko mitoetatik ere sortzen da, munduaren sorrera eta intuizio filosofiko zaharrenetatik. Gizakiak betidanik bere buruari galdetu dion zerbait gehiago hori. Oro har, jatorriaz hitz egiten duten gure historiaren irudiengatik honaino nola iritsi garen eta etorriko denaz.

Poema dantzatua da, etorkizun posible bat marrazten duena, argiari egindako kantu bat, denbora igarotzen duena guri forma emateko.

SARIAK

- A Cielo Abierto 2025 Sarea: hautatutako ikuskizuna
- Programa.cat 2025 katalogoan gomendatutako ikuskizuna
- Fira Tàrrega 2024: hautatua



AKTOREAK

Diego Pazó eta Lucía Burguete

FITXA ARTISTIKOA

Zuzendaritza: Diego Pazó eta Lucía Burguete

Antzerkigintza: Qabalum

Jantziak: Eva María González

Musika: VV.AA. (composición de Diego Pazó)

Asistente de Ekoizpena: Patty Hinchado

Banaketa: Patty Hinchado

Aholkularitza artistikoa: Akira Yoshida, Sandra Muñiz, Martxel Rodriguez, Jon López



Dantza



Guztiak



Kalea



24'



Testurik gabe



qabalum.com



@qabalum



@pattyhinchado



EL PEOR ESPECTÁCULO DEL MUNDO. DE MOMENTO!!

Zanguango Teatro		📍 Salamanca	
📅 Uztailak 25 ostirala	🕒 19:30	📍 Teobaldoen plaza, Erriberri	
Dokumentu delirante bat, BIOPIC bat, auzoko heroi bat protagonista duena, izaki baztergarri bat, munduan denetarik egon behar duelako. Aurrekontu txikiarekin eta material txarrekin bere burua eraikitzen duten pertsona horiekiko maitasun ekintza bat. Norbait izaten saiatzen direnei buruzko pieza komiko bat. baina, azkenean, haien bizitza untxiena bezalakoa da, matoz mato salto egiten dutenak arrastorik utzi gabe eta atzera begiratzean eskopeten beldurra besterik ez dute ikusten. “Zeri lotu ez dagoenean, barrea besterik ez zaigu geratzen “. SARIAK ▪ 2 MAX Sari: Errekonozimendu Ikuskizuna eta Kale Ikuskizun Oena		AKTOREAK Txubio Fernández FITXA ARTISTIKOA Zuzendaritza: Miguel Muñoz Antzerkigintza: Txubio Fernández eta Miguel Muñoz Eszenografia: Carlos P. Donado Jantziak: Zanguango Teatro Soinua / Musika: Marc Canou Ekoizpena: Zanguango Teatro Banaketa: Zanguango Teatro	
👤 Antzerkia	👥 Helduak	📍 Kalea	🔗 zanguangoteatro.com
🕒 60'	💬 Gaztelania		

EL BAR NUESTRO DE CADA DÍA

Chipi La Canalla		Sevilla	
Uztailak 25 ostirala	22:00	La Cava	
Umorezko bakarriketa musikala, non Antonio Romerak, Chipi “La Canalla” -k, meza bat antzezten du taberna batean eta liturgia katolikoan oinarritzen da tabernak sakralizatzeko eta bizitzaren eta jendearen kultuzko tenplu gisa errebindikatzea. Batzuetan kontzertua, besteetan antzerkia, besteetan solasaldia lagunartean... Ikuskizun bat baino gehiago, esperientzia parte-hartzailea da non publikoa erritu pagano honen konplize bihurtzen den, non jendea jainkoen gainetik gurtzen den.		AKTOREAK Antonio Romera “Chipi” Banda: Javier Galiana de la Rosa (pianoa), Bernardo Parrilla (haizeak) eta David León (perkusioak) FITXA ARTISTIKOA Zuzendaritza: Antonio Romera “Chipi” Antzerkigintza: Antonio Romera “Chipi” Eszenografia: Libibirloque Jantziak: Telita Confecciones Musika: Javier Galiana de la Rosa eta Antonio Romera “Chipi” Soinuaren diseinua: Curro Ureba “Trafalgar Estudios” Ekoizpena: La Mar Sonora Producciones Banaketa: Elena Carrascal Impulso* Distribución Diseinu grafikoa La Fábrica Gráfica	
Antzerkia - Musika	Guztiak	Aretoa	elenacarrascal.com
90’	Gaztelania		





MIHURA, EL ÚLTIMO COMEDIÓGRAFO

Nave10 Matadero y Entrecajas Producciones Teatrales

Madrid

Uztailak 26 larunbata

22:00

La Cava

Denetarik amestu eta barre egin daiteke. Hori da eskandalagarria. Eta badira arrisku hori beren gain hartzen duten pertsonak. Jasanezinaren aurrean, beti geratzen da barre egiteko eta amets egiten jarraitzeko aukera.

Hori egin zuen Miguel Mihurak bere idazkera burutsu eta ausartarekin gure herrialdeak bizi izan dituen unerik kritikoenetan.

Hala eta guztiz ere, Mihurak luma hartu eta komediak idazten jarraitzen du, hala nola, ibilbide bat, erresistentzia modu bat, errealitatea onartu eta algara baten indar itzelaren bidez gainditzeko ezinbesteko tresna bat.

AKTOREAK

Gorka Ganso & Cecilia Paganini

FITXA ARTISTIKOA

Zuzendaritza: Beatríz Jaén

Antzerkigintza: Adrián Perea

Eszenografia: Pablo Menor Palomo

Jantziak: Vanesa Actif

Argiztapena: Pedro Yagüe

Soinua / Musika: Luis Miguel Cobo

Ekoizpena: Nave 10 Matadero eta Entrecajas Producciones Teatrales

Banaketa: Entrecajas Producciones Teatrales

Antzerkia

Helduak

Aretoa

nave10matadero.es

EntrecajasProduccionesTeatrales

105'

Gaztelania

Azpitululuak / Begizta magnetikoa

@entrecajasp



			22
H			
Cia. La Corcoles		📍 Catalunya / França	
📅 Uztailak 26 larunbata	🕒 19:30	📍 Teobaldoen plaza, Erriberri	
📅 Uztailak 27 igandea	🕒 19:30	📍 Teobaldoen plaza, Erriberri	
Bitako bals bat da, pertsonaia bat eta bere funtsezko elementua, bizitzak ematen dion “balancier”-a. Indar-dantza honek protagonistek existitzeko dituzten ahuleziak eta beharrak erakusten dizkigu. Beren bizitzak definitzen dituzten barne-irrikak eta -borrokak. Arrauna, lantza, borroka bat eta bere haustura saihestezinak. Batzuetan zama zapaltzailea, beste batzuetan amaren besoetan harrapatutako pisua. Bi ahots altu, hitzez mutu.		SARIAK ▪ Kale-zirkuko ikuskizun onenaren saria 2023, ZIRKÒLIKA SARIAK ▪ Kale Ikuskizun Okena ex aequo, FETEN 2024 ▪ Ikuskizun Okena ex aequo, ARCA 2024, Epaimahai Ofiziala ▪ Pom d’or Saria, SENSE PORTES FESTIBALA, Argentona 2024 ▪ Aipamen Berezia, UMORE AZOKA 2024 ▪ Territorio Violeta Sarietako epaimahaiaren aipamen berezia, CIRCAIRE 2024 Jaialdian	
AKTOREAK Mariona Moya: funanbulista		👤 Zirkua-dantza 👥 Guztiak 🏠 Kalea	
FITXA ARTISTIKOA Zuzendaritza, Antzerkigintza, Eszenografia eta Jantziak: Mariona Moya - La Corcoles Soinua / Musika: Arreglos musicales Zinkman Ekoizpena: Mariona Moya - La Corcoles Banaketa: KandengueArts		🕒 24’ 💬 Testurik gabe	
		📄 cialacorcoles.com 📱 @cia.lacorcoles	
		📺 cia.lacorcoles	

EL DRAGÓN DE ORO

Sarabela Teatro

Navarra

Uztailak 27 igandea

22:00

La Cava

Roland Schimmelpfennig, nazioartean gehien antzeztua den egile alemaniarren kutsu groteskoa duen tragedia garaikide performatikoa.

Gau batean, zenbait pisutako eraikin batean, Europako tokiren batean, txinatar gazte batek hagineta min handia du fast-food-eko jabetxe asiar bateko sukaldean.

Ez du erresidentzia baimenik eta ez du ahizpa desagertua aurkitzen. Urrezko Dragoiaren gaineko balkoian, agure batek denboran atzera egin nahi du. Bitartean, haurdun dagoen bilobak bere harremanaren hondakinei aurre egin behar die, bere mutil-lagunak ez baitu seme-alabarik izan nahi. Auzokide asko bizi dira eraikinean.

SARIAK



AKTOREAK

Fina Calleja, Fernando Dacosta, Sabela Gago, Fernando González eta Fran Lareu

FITXA ARTISTIKOA

Zuzendaritza: Ánxeles Cuña Bóveda

Antzerkigintza: Ánxeles Cuña Bóveda

Eszenografia: Iris Branco

Jantziak: Ruth Díaz Pereira

Argiztapena: Laura Iturralde

Soinua / Musika: Renata Codda Font / Vadzim Yuknhevich

Ekoizpena: Fina Calleja

Banaketa: Carlos M. Carbonell eta Crémilo

Mugimenduaren aholkularitza: Rut Balbís

Testuaren aholkularitza: María Peinado

Antzerkia

75'

Guztiak

Gaztelania

Aretoa

sarabellateatro.com

@sarabellateatro

sarabellateatro.galicia

SIN FICHERO ADJUNTO

Erain  Nafarroa

 **Uztailak 29 astartea**  **18:00**  **Kondearen plaza, Tafalla**

Egoera infinituetara estrapola daitekeen egoera bat aipatzen du: jarraibideak falta zaizkizula sentitzea, jarraitu beharreko urratsak dituen gida bat eduki nahi duzula. Galduta sentitzea, hurrengo urratsa zein den, zer den zuzena edo zein ate izan beharko lukeen irekitzen hurrengoa jasoo duen dokumentu baten falta sumatzea.

Inork zure bizitza nola bizi eta zure ahotsa nola diseinatu inoiz irakatsiko ez dizun errealitatea onartzera gonbidatzen gaitu. Proiektu honen helburua da kezka horiek publikoarekin partekatzea, sorkuntzaren bidez eszenatokira hurbiltzea eta elkarri laguntzea gure egunerokotasunean etengabe erabakiak hartzeko ezinbesteko dantza honetan.

AKTOREAK

Ioar Labat eta Julia Razquin

FITXA ARTISTIKOA

Zuzendaritza: Ioar Labat eta Julia Razquin

Antzerkigintza: Ioar Labat eta Julia Razquin

Eszenografia: Ioar Labat eta Josu Berrio

Jantziak: Marina Almagro

Argiztapena: Mauricio Pérez

Soinua / Musika: Mauricio Pérez

Ekoizpena: Ioar Labat eta Julia Razquin

Banaketa: Ioar Labat eta Julia Razquin

 **Dantza**
 **15'**

 **Guztiak**
 **Testurik gabe**

 **Kalea**

 **@erain_**



LA VELOCIDAD DE LA LUZ

Marco Canale

Argentina

Uztailak 29 asteartea	19:00	Karlos III. plaza, Erriberri
Uztailak 30 asteazkena	19:00	Karlos III. plaza, Erriberri

“La velocidad de la luz” Erriberriko adineko pertsonak protagonista dituen bidaia eszenikoa da. Bere memorietatik, musikatik eta hiriaren iragana, oraina eta etorkizuna – irudikatua – zeharkatzen dituen fikziotik sortzen da. Kaleak, etxeak eta espazio publiko bat eszenatoki gisa hartuz.

Bere haurtzaroa, lana, maitasuna, gatazka sozialak, herriaren historia, musikarekiko pasioa, denboraren igarotzea, maitasuna eta heriotzaren ondorengo bizitzari buruzko ikuspegiak gurutzatzen dituen obra bizi eta hunkigarri bat.

Argentinan, Alemanian, Japonian, Suitzan, Brasilen, Txileko Santiagon eta Espainian (Cadiz eta Iruñea) sortu dute lana.



AKTOREAK

